

GETXO. Batasunako zinegotziek Uri antolamendurako Plan Orokorra salatu dabe

Uri antolamendua «elitista da»

Legez kanpokoa dala, eta Jaurilaritzearen laguntzeagaz onartu dala adierazo dau taldeak

Veronica Muñoz |

Getxoko Uri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) indarrean sartu zan joan dan abuztuan, hori diseinetako lehenengo pausoak emon ziranetik bederatzirte igaro ostean. Onartutako plana salatu dabe orain Batasunako ordezkariak, euren eritxiz «gizarte eta ingurumenaren aldetik herriko garapenerako egin daben plan elitista hori ezin dalako onartu».

Etxebizitza gehienak, dentsitate baxukoak eta erdikoak

Izan be, Batasunaren azalpenetan, 2.500.000 metro koadroko lur atala, udalerriko eremu osoaren laurden bat hain zuzen, dentsitate baxuko edo erdi mailako dentsitateko eraikinak egiteko erabiliko dabe, Getxoko HAPOan jasoten dan lez.

Horrek esan gura dau, Christian Reynicke taldeko bozeroaleare eritxiz, «plan orokorrean jasoten dan hazkundearen eredu Bizkaiko eliteei zuzenduta dagoala, eta ez dauela balio herrian dagoan etxebizitzaren arazo larria gixtitzeko».

Batasunak salatu dauenez, «azken urte biotan, eta HAPO-a onartu baino askoz lehenago, eredu elitista hori sortzeko pausoak emon dira». Taldeko bozeroalearen berbetan, Uribe Kostako korridorea horren adibide da.

Orain dala urte gitxi egindako beste azpiegitura bi lotu dauz Batasunak, aitatutako eredu elitistagaz, kontsumoagaz lotuta: Artea merkataritza gunea eta Getxoko Kirol Portua dira.



VERONICA MUÑOZ
Kirol Portua eta Artea mekataritza gunea lezko azpiegiturak herriko kalterako dirala dino Batasunak.

CHRISTIAN REYNICKE

Batasuna taldeko bozeroalea

«Gure helburua herriaren garapen orekatua lortzeko proposamenak egitea da»

Herriko erdiguneen jagokonean, inguruotan eregi barik dagozan inguruak etxebizitzak egiteko erabiliko dirala salatu dau Batasunak: «Erromon, Al-

gorta eta Portu Zaharra artean, eta eregi barik dagozan ganerako inguruetan, preminazkoak diran beste hainbat azpiegitura egin barik».

Ingurumenagaz lotuta, Batasunaren azalpenetan udalerriko ibaiak gehiago estaltzeko proiektuak jasoten dauz herriko garapenerako plan orokorrak, batez be Andra Mariko urbanizazioa, eregiteko helmuga Sopelairaino doalako; horrezaz ganera, Portu Zaharreko inguruetan egin gura daben oinezkoentzako bidea amilde-

giaren kalterako izango dala gehitu dau Batasunak. Kalteok estaltzeko «makilaje ekimenak» aurreikusten dirala salatu dau Getxoko Ezker abertzaleko taldeak.

Christian Reynickeren azalpenetan, «hasieran Herri Batasunak, horren ostean Euskal Herriarrok taldeak, eta orain Batasunak uria garatzeko eredu elitistaren aurka egin dau beti, alternatibak aurkezten». Ildo beretik jarraituko dauela dino Batasunak, «herrian garapen orekatua lortu ahal izateko».

Algortako Etorbidea, Andres Cortina eta Kale Nagusia itxiko dabez, Kotxerik Bako Egunean

V.M. |

Irailaren 22an Kotxe Bako Eguna egingo dabe Getxon, beste hainbat lekutan egingo daben lez; zenbait neurri hartuko dauz herriko Udalak, datorren zapatuan getxotarrek autoa etxean itxi daien; alde batetik, udalerriko kale nagusiak itxita egongo dira, goizeko 8:00etatik iluntzeko 20:00etara: Algortan Andres Cortina itxiko dabe, eta Algortako Etorbidea Telletxetik Maria Andresena kaleraino. Areetan, Kale Nagusia egongo da itxita, Andres Larrazabaletik.

Horrezaz ganera, Eusko Tren enpresek Bilbo eta Azkorri lotzen dauen autobus zerbitzua areagotu egingo dau; autobusak ordu erdiro igaro orde, hamabost minuturik behin emongo dabe zerbitzu hori.

Aisialdirako ekitaldien egitarau zabala

Aurton, ganera, aisialdirako zenbait ekitaldi gertau dabez, Kotxe Bako Eguna ospatzeko. Izan be, goiz-goizean bizikletaz eta patinakaz ibilteko lasterketak, umeentzako jolasak eta tailerrak, heritik ibilteko tren be-

rezia, eta umeentzako poniak izango dira, Algortan zein Areetan, beste ekitaldi askoren artean.

Igaz egin eban lez, Maite Bilbao Getxoko Ingurumen zinegotziak datorren zapatuan eze, ahal dan egun guztietan kotxea ahalik eta gitxienetan erabiltzeko deia egin deutse herriarrei. Getxotarrek kanpainaren ganeko informazioa jaso ko dabe etxean, eta kalean eta gidarien artean be datorren zapatuan hartuko diran neurrien ganeko argibideak emongo dabez.

EGITARAUA

IRAILAK 22 (ZAPATUA)

10:30: Ibilaldi herrikoa bizikletaz; Areetako plazatik urtengo dabe txirindulariek, eta udalerriko osoa zeharkatuko dabe, Algortaraino.
12:30: Lasterketea patinakaz, Areetako Kale Nagusian. Inskripzioa 12:00etan.
11:00-14:00/17:00-19:00: Poniak umeentzat, Algortako Etorbidean.
11:00-14:00/16:00-19:00: Ping-pongaren egiteko mahaiak, Algortako Geltoki plazan. Txu-txu trenan Algorta eta Areetan.
12:00-14:00: Globo aeroestatikoa, Areetako Geltoki plazan; Algortan umeentzako pintura tailerrak.
13:00: Skate ikuskizuna, Areetako pistan.
12:00-14:00/17:00-19:00: Xake txapelketea, Areetako Geltoki plazan.
Egun osoan: Umeentzako puzgarriak, Algorta eta Areetako plazetan.

LAGURAEAN

GETXO

Ikuskizuna emongo dabe Kaukasoko Kosakoek Areetan, astelehenean

Datorren astelehenean, hilaren 17an Areetako Geltoki plazean Kaukasoko Kosakoek izeneko baletaren emonaldia hartuko dau. Kaukasoko dantzariak, musikariak eta kantariak osotutako taldeak ikuskizun ederra eskainiko dau, arrastiko 20:00etan hasita, dantza eta musika tradizionalen bitartez euren herrialdeko kultura eta tradizioak erakusteko asmoz. Herriko Kultur Etxeak gertau dau ikuskizun hori, Areetako Geltoki plazan ipinitako karpa erraldoian, eta emonaldirako sarrerea doan izango da.

MUSIKALE

Kaleko musika bandek Erandion eta Leioan joko dabe, gaur eta bihar

Musikale, kaleko musika banden lehenengo topaketak jasoko dabez Bizkaiko lau herrik, gaur eta bihar, tar-tean eskualdeko Erandiok eta Leioak. Goizeko 12:30etik aurrera, eta arrastiko 19:30etik aurrera izango dira ikuskizunak. Erandion, hasteko, gaur goizean Astrabuduan joko dabez bandek; eta arrastirako, barriz, Altzagan gertau dabez emonaldiak. Bihar Altzagako kaleetatik ibiliko dira bandak, eta arrastian Astrabuduan. Leioan be kaleko bandek joko dabe, gaur egun osoan eta bihar goizean, Sabino Aran eta Udondon; eta domeka arrastian Ondiz auzoan. Eskualdeko herriotan joko dabe, besteak beste, ondorengo bandek: Sama Siku (Bizkaia), Pixie & Dixie Band (Valladolid), Salbatzaile fanfarria (Iparraldea), La Banda del Surdo (Girona), Clan Wallace (Eskozia), Axouzer (Galizia), eta La Belle Image (Frantzia).

AGENDEA

GETXO

XV. Habanera eta Itsas-Abestien

Jaialdia: Terrassako Grup Vallparadis taldeko emonaldia izango da iluntzeon, 21:00etan hasita, Areetako Geltoki plazan. Kontzerturako sarrerea doan da.

BERANGO

Herri bazkaria nagusientzat:

Berangoko Karabiazpi erretrairuen alkarreak bazkari herrikoa gertau dau irailaren 22rako, herriko pelotalekuan. Gura dauenak Nagusien Etxean edo Kultur Etxean lortu leiteke txartela, 1.000 pezetan, hilaren 18ra bitartean.